

KOMIKI BAT SORTZEA

1 IRUDIAK ERABILTZEA

Zeure komikirako marrazten edo irudien argazkiak ateratzen dituzunean, egile-eskubideak sortzen dituzu zeure irudiengatik. Komiki, marrazki edo beste-lakoen pertsonaiak egile-eskubideek babestutako obrak dira. Beste norbaitek egindako irudi edo marrazki bat erabiltzen baduzu, egilearen baimena behar duzu, oro har.

Beste norbaitek sortutako irudiak erabil ditzakezu egilearen baimenarekin.

Creative Commons lizentzia batekin:

Litekeena da egileak bere irudien erabilera baimendu izana, adibidez, Creative Commons lizentzia batekin. Lizentziaren baldintzek adierazten dute nola erabil daitekeen irudia.

Kasuan kasuko kudeaketa-erakundeetan ere kontsulta dezakezu:

CEDROK komikien editoreak eta idazleak ordezkatzen ditu. VEGAPek ilustratzaileak eta argazkilariak ordezkatzen ditu.

2 ARGAZKIAK EGITEA.

Zeuk egindako argazkietan oinarritutako komiki bat ere egin dezakezu. Leku publikoetan, pertsoneri ere egin dakizkieke argazkiak, haien baimena baduzu. Espazio pribatu batean (adibidez, norbaiten etxean), beti eskatu behar da baimena argazkiak egiteko. Beti eskatu behar zaie baimena argazkietan agertzen diren pertsoneri argazkiak egiteko eta argazki horiek Interneten edo sare sozialetan partekatzeke. Gogoratu ezin dela irudi iraingarririk partekatu.

3 TESTU-ZATIAK ERABILTZEA.

Oro har, baimena eduki behar da edozein testu-lan erabiltzeko, zati txiki bat besterik ez bada ere. Liburu edo komikien izenburuak ere babestuta daude, jatorrizkoak badira. Horregatik, ezin duzu beste obra baten jatorrizko izenburua kopiatu.

Horretaz gain, testu-lanetako pertsonaiak ere babestuta egon daitezke egile-eskubideen bidez, baita marka gisa ere. Balioetsi dezakezu aipu-muga aplikatu dakioken zure lanari. Aipu-mugak aukera ematen du norberaren obratik beste norbaiten obra baten zati bat sartzeko, aipu, analisi, iruzkin edo iritzi kritiko gisa, irakaskuntza- edo ikerketa-helburuekin.

Aipuaren helburua zure lana argitzea eta adibideak ematea da. Aipua komatxoaren artean markatzen da beti, eta egilea eta iturria aipatzen dira.



4 GAINERAKOEN EGILE-ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA.

Beste norbaitek sortutako obrak erabiltzen badituzu, ez ahaztu egilearen izena eta iturria aipatzea eta behar denean baimena eskatzea. Obra bat aldatzeko, oro har, egilearen baimena behar da.

Hala ere, ideiak edo beste norbaitek sortutako obra bat zure obrarako inspirazio-iturri gisa erabil ditzakezu, baina beste norbaitek egindako obra ezin da kopiatu edo erreproduzitu.

Idea bat erabiliz, beste lan independente eta original bat egin daiteke. Dena den, egiten duzun obra jatorrizko obratik bereizi behar da, horrekin identifikatu ezin izateko.

